

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren FORU AGINDUA; horren bidez, hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko 2021eko bigarren deialdiaren oinarriak onesten dira.

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, ahalmena ematen dio edozein euskal administrazio publikori hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdiak egiteko.

Bizkaiko Foru Aldundian derrigortasun datadun hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak daudenez, berriro hasi behar da hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko prozesua; horretarako, egin behar diren probetarako deialdia egin behar da.

Foru agindu honek erregulazio onaren printzipioak betetzen ditu. Printzipio horiek jasota daude Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Legeak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz, Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardupideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauarekin bat etorritz, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onesten duen abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera,

ORDEN FORAL de la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte, por la que se aprueban las bases de la segunda convocatoria de 2021 para la acreditación de los perfiles lingüísticos.

El Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, faculta a cualquiera de las administraciones públicas vascas para la realización de convocatorias de pruebas de acreditación de perfiles lingüísticos.

Dada la existencia de puestos de trabajo de la Diputación Foral de Bizkaia que tienen asignado un perfil lingüístico de carácter preceptivo, se hace necesario iniciar de nuevo el proceso de acreditación de los perfiles lingüísticos, convocando las pruebas al efecto.

La presente Orden Foral responde a los principios de buena regulación previstos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y recogidos en el artículo 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

En uso de las facultades que la ley me confiere y de conformidad con la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico, a tenor de lo dispuesto por el Decreto Foral 131/2020, de 29 de diciembre, por el que se aprueba el reglamento de estructura orgánica del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia,



#### XEDATZEN DUT:

*Lehenengoa:* Euskara Zerbitzuaren 2021eko urriaren 7ko txostena oso-osorik onartuta, hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko 2021eko bigarren deialdiaren oinarriak onestea. Oinarriok batu zaizkio foru agindu honi, ondorio guztietarako batu ere.

*Bigarrena:* Foru agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

*Hirugarrena:* Honako hau Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari eta forusail guztietako zerbitzu orokorrei jakinaraztea.

#### DISPONGO:

*Primero:* Con aceptación íntegra del Informe del Servicio de Euskera de fecha 7 de octubre de 2021, aprobar las bases de la segunda convocatoria de 2021 para la acreditación de los perfiles lingüísticos que se adjuntan a la presente y se incorporan a la misma a todos los efectos.

*Segundo:* Proceder a la publicación de la orden foral en el Boletín Oficial de Bizkaia, de manera que entre en vigor el día siguiente de dicha publicación.

*Tercero:* Notificar la presente al Instituto Vasco de Administración Pública y a los Servicios Generales de todos los Departamentos Forales.

## HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK.

### 1. oinarria. *Deialdiaren helburua.*

Euskal Autonomia Elkarteak herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan xedatutako lehenengo, bigarren, hirugarren eta laugarren hizkuntza-eskakizunak egiaztatze aukera ematen du deialdi honek. Hizkuntza-eskakizun bakoitza Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila banarekin dago baliokidetuta: B1, B2, C1 eta C2, hurrenez hurren.

Edozein modutara, proba hauetan parte hartzea erabakitzen duten langileek hizkuntza-eskakizun bakar bati dagokion azterketa egin ahal izango dute.

### 2. oinarria. *Deialdian parte har dezaketenak.*

Proba hauetan Bizkaiko Foru Aldundiaren eta haren erakunde autonomiadunen zerbitzuean diharduten langileek parte har dezakete; Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen IV. Tituluko II. Kapituluko 96. artikuluan aipatzen diren behin - behineko langileak izan ezik.

Bizkaiko Foru Aldundiko langileak izan arren, egoera administratibo hauetan daudenek ere ezin izango dute parte hartu:

- Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen 61. artikuluan jasotzen diren borondatezko eszedentziak: edozein administrazio publikotako beste kidego batean edo eskalan jarduneko zerbitzuan egoteagatik, norberaren interes partikularrengatik, familia elkarteagatik edo sustaturiko borondatezko eszedentziaren kasuan.
- Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen 66.3 artikuluan jasotzen den egiteko ez gabetze irmoa.

## BASES DE LA CONVOCATORIA PARA LA ACREDITACIÓN DE LOS PERFILES LINGÜÍSTICOS.

### Base 1. *Objeto de la convocatoria.*

Esta convocatoria posibilita la acreditación de los perfiles lingüísticos uno, dos, tres y cuatro dispuestos en el Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Cada uno de los perfiles lingüísticos está convalidado con uno de los niveles del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas, con el B1, B2, C1 y C2, respectivamente.

En cualquier caso, las personas solicitantes sólo podrán realizar el examen de un único perfil lingüístico.

### Base 2. *Personas que pueden presentarse a la convocatoria.*

Podrá participar en estas pruebas el personal al servicio de la Diputación Foral de Bizkaia y de sus organismos autónomos, a excepción del personal eventual incluido en el artículo 96 del Capítulo II del Título IV de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca.

Tampoco podrán participar aquellas personas, que aun siendo personal de la Diputación Foral de Bizkaia, se encuentren en alguna de las siguientes situaciones administrativas:

- Excedencias voluntarias recogidas en el artículo 61 de la Ley 6/1989 de la Función Pública Vasca: por encontrarse en servicio activo en otro cuerpo o escala de cualquier Administración Pública, por interés particular voluntaria, por agrupación familiar o, en el supuesto de excedencia voluntaria incentivada.
- Suspensión firme recogida en el artículo 66.3 de la Ley 6/1989 de la Función Pública Vasca.



- Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen 67. artikuluan jasotzen den beste administrazio batzuetan zerbitzuan egotea. Hau da, beste administrazio publiko batzuetako lanpostuaz, nahiz lehiaketa bidez, nahiz aukerako izendapenez, jabetu diren langileak.

3. oinarria. *Laugarren hizkuntza-eskakizunera aurkeztuko direnak.*

Laugarren hizkuntza-eskakizuneko azterketa egin ahal izango dute 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu edo horren baliokidea den tituluren bat lortu duten langileek, betetzen duten lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna edozein izanda ere.

4. oinarria. *Izena ematea.*

Foru agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta 10 egun naturalekoa izango da. Aipatutako eskabideak modu telematikoan aurkeztu beharko dira Hizkuntz Normalizazio Atalak ATARILEKUREN bidez jakinaraziko duen intraneteko helbidean. Baliabide informatikorik izan ezean, Hizkuntz Normalizazio Ataleko bulegoetan, Bilboko Recalde zumarkaleko 30-5.ean, aurkeztuko dira eskabideak, edo, interesdunari hala badagokio, GUFeko bulego nagusietan.

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, onartutako eta bazter utzitako izangaien behin-behineko zerrenda onartu eta Bizkaiko Foru Aldundiaren intranetean argitaratuko da. Hizkuntz Normalizazio Atalak ATARILEKUREN bidez jakinaraziko du aipatutako zerrendaren argitalpena.

- Situación de servicio en otras Administraciones Públicas recogida en el artículo 67 de la Ley 6/1989 de la Función Pública Vasca. Es decir, aquellas personas que, mediante los procedimientos de concurso o libre designación, hayan pasado a ocupar puestos de trabajo en otras Administraciones Públicas.

Base 3. *Personas que se presentan al cuarto perfil.*

Podrán realizar el examen correspondiente al perfil lingüístico 4 aquellas personas que, con independencia del perfil que tengan asignado en su puesto de trabajo, hayan acreditado el perfil lingüístico 3 o posean un título o certificado equivalente.

Base 4. *Inscripción.*

El plazo para la presentación de las solicitudes se iniciará al día siguiente de la publicación de la presente orden foral en el Boletín Oficial de Bizkaia y será de 10 días naturales. Dichas solicitudes habrán de realizarse de forma telemática en la dirección de intranet que proporcionará la Sección de Normalización Lingüística en comunicación enviada por ATARILEKU. Cuando no se disponga de recursos informáticos las solicitudes se realizarán en las oficinas de Normalización Lingüística, sitas en Bilbao, Ald. Recalde 30-5ª o, en su caso, en las oficinas centrales del IFAS.

Una vez finalizado el plazo de presentación de solicitudes, se aprobará la relación provisional de admisiones y exclusiones que se publicará en la intranet de la Diputación Foral de Bizkaia. La Sección de Normalización Lingüística comunicará su publicación a través de ATARILEKU.



Onartutako eta bazter utzitako izangaien behin-behineko zerrenda argitaratu eta biharamunetik aurrera, 5 egun naturaleko epea izango dute interesdunek egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazioak 5 egun naturaleko epearen barruan ebatziko ditu Euskara zuzendari nagusiak, erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta biharamunetik hasita, eta interesdun guztiei banan-banan emango zaie hartutako ebazpenaren berri.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta hauek ebatzi ondoren, onartutako eta bazter utzitako izangaien behin betiko zerrenda Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren foru agindu bidez onartu eta Bizkaiko Foru Aldundiaren intranetean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Azterketak egiten direnean behin betiko zerrenda argitaraturik ez badago, erreklamazioa aurkeztu duten langileek azterketa egin ahal izango dute. Azterketa horrek, ordea, ez du baliorik edukiko, izangaia behin betiko onartua ez bada.

#### 5. oinarria. *Epaimahaia.*

Azterketak zuzendu eta neurtuko dituzten epaimahaikideak Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuak izendatuko ditu, foru agindu baten bidez.

Epaimahaikideek 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta eduki beharko dute eta funtzionarioak edo lan-kontratuko langileak izango dira, gehienak karrerakoak edo finkoak, hurrenez hurren.

Epaimahaian, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko ordezkari bat egongo da.

Halaber, emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izango da. Ordezkaritza orekatua izango da, lau kide baino gehiagoko organoetan, sexu bakoitzak, gutxienez, % 40ko ordezkariak duenean, eta gainerako organoetan, berriz, sexu biak ordezkariak daudenean.

A partir del día siguiente a la publicación de la relación provisional de admisiones y exclusiones, las personas interesadas dispondrán de un plazo de 5 días naturales para formular las reclamaciones que consideren oportunas. Las reclamaciones serán resueltas por el director general de Euskera, dentro de los 5 días naturales siguientes a aquél en que finalice el plazo establecido para formularlas, y su resolución se notificará de forma individualizada.

Expirado el plazo de reclamaciones y resueltas éstas en su caso, se procederá a la aprobación de la relación definitiva de admisiones y exclusiones mediante orden foral de la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte y a su publicación en la intranet de la Diputación Foral de Bizkaia y en el Boletín Oficial de Bizkaia. Si para la fecha de celebración de las pruebas no se hubiese publicado dicha lista, las personas aspirantes que hubiesen presentado alguna reclamación podrán realizar el examen, si bien éste no tendrá validez en el caso de no aparecer el o la aspirante en la lista definitiva de admisiones.

#### Base 5. *El tribunal calificador.*

Las personas integrantes del Tribunal encargado de calificar los exámenes serán nombradas por orden foral de la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte.

Las personas miembros deberán tener acreditado el perfil lingüístico 4 y serán funcionarias o personal laboral, mayoritariamente de carrera o fijo, respectivamente.

En la composición del tribunal figurará una persona representante del Instituto Vasco de Administración Pública.

Asimismo, se garantizará una representación equilibrada de mujeres y hombres. Se considera que existe una representación equilibrada cuando siendo más de cuatro miembros cada sexo está representado al menos al 40%. En el resto, cuando los dos sexos estén representados.



Epaimahaiak, egoki baderitzo, aholkulari espezialistak eduki ahal izango ditu kideei laguntza emateko. Aholkulariok beren espezialitate teknikoetara mugatuko dute jarduna, izaera horrekin bakarrik hartzen baitute parte kalifikazio-organo horretan.

6. oinarria. *Azterketaldia: idatzia eta ahozkoa.*

Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko prozesuak bi azterketa ditu: idatzia eta ahozkoa.

7. oinarria. *Azterketa idatzia.*

Azterketa idatzian honako trebetasun hauek neurtuko dira: irakurmena eta idazmena.

8. oinarria. *Ahozko azterketa.*

Bigarren azterketa ahozkoa izango da, eta horretan mintzamina eta entzumena neurtuko dira.

Mintzamina grabatu egingo da, betiere, horretarako baimena esanbidez ukatzen ez bada.

9. oinarria. *Azterketa-egunak eta toki-orduak.*

Azterketa-egunak eta toki-orduak zehaztuko dira Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren foru-agindu bidez.

10. oinarria. *Ebaluatzeko irizpideak.*

Hizkuntza-eskakizun bakoitzean eskatzen den ezagupen maila neurtzeko, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua hartuko da kontuan.

11. oinarria. *Azterketak kalifikatzeko modua.*

Trebetasun bakoitzaren emaitza (idazmena, irakurmena, entzumena eta mintzamina) eta prozesu osoarena orokorrak izango dira, hau da, "Gai", "Ez gai" edo "Ez aurkeztua".

Derrigorrezkoa da trebetasun guztiak gaintzea emaitza orokorra "Gai" izateko. Izangaia trebetasun batera ere aurkezten ez bada, emaitza orokorra "Ez aurkeztua" izango

El tribunal podrá disponer, si lo cree conveniente, la incorporación de personas asesoras especialistas que colaboren con sus miembros. Dichas personas asesoras se limitarán al ejercicio de sus especialidades técnicas, en base exclusivamente a las cuales colaborarán con el órgano calificador.

Base 6. *Fase de examen: escrito y oral.*

El proceso acreditativo de cualquier perfil lingüístico consta de dos partes: la escrita y la oral.

Base 7. *Examen escrito.*

En este examen se evaluarán las siguientes destrezas: comprensión y expresión escrita.

Base 8. *Examen oral.*

El segundo examen será oral y se evaluará la destreza de las personas candidatas en la expresión y comprensión oral.

Se grabará la prueba de expresión oral, siempre y cuando no se deniegue expresamente su permiso.

Base 9. *Fechas, lugares y horarios de los exámenes.*

Las fechas, lugares y horarios de los exámenes vendrán determinados mediante orden foral de la diputada de Euskera, Cultura y Deporte.

Base 10. *Criterios de evaluación.*

El nivel de conocimiento de euskera exigido en cada perfil lingüístico se evaluará teniendo en cuenta el Marco Común Europeo para la Enseñanza de las Lenguas.

Base 11. *Calificación de los exámenes.*

El resultado de cada destreza (comprensión escrita, expresión escrita, comprensión oral y expresión oral) y del proceso completo será global y se expresará en forma de "Apto" "No apto" o "No presentado".

Es necesario superar todas las destrezas para obtener la calificación final de "apto". En caso de no presentarse a ninguna de las destrezas, el resultado global será "No presentado".



da.

#### 12. oinarria. *Azterketaren emaitza gordetzea.*

Irakurmena, idazmena eta entzumena gainditzeko izangaiak salbuetsita egongo dira gainditutako trebetasun horiei dagozkien ariketak egitetik hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetarako Bizkaiko Foru Aldundiaren hurren-hurrengo deialdian. Hortaz, zuzenean aurkeztuko dira mintzamenaren azterketara.

Aipatu salbuespenaren barruan eta baldintza berberetan egongo dira IVAPen aurre-aurreko deialdian aurkeztu eta, lortutako emaitzen arabera, egoera berean aurkitzen diren Bizkaiko Foru Aldundiaren eta haren erakunde autonomiadunen zerbitzuean diharduten langileak ere.

Mintzamena, irakurmena eta entzumena gainditzeko izangaiak salbuetsita egongo dira gainditutako trebetasun horiei dagozkien ariketak egitetik hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetarako Bizkaiko Foru Aldundiaren hurren-hurrengo deialdian. Hortaz, zuzenean aurkeztuko dira idazmenaren azterketara.

Hala ere, izangai horiek probetarako izena eman beharko dute hurren-hurrengo deialdian eta dagokion epearen barruan.

#### 13. oinarria. *Behin-behineko emaitzak.*

Proba bakoitzaren behin-behineko emaitzak eta behin-behineko emaitza orokorra Bizkaiko Foru Aldundiaren intranetean argitaratu eta posta elektronikoen bidez jakinaraziko zaizkie interesdun guztiei.

Behin-behineko emaitza horiek argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, 5 egun naturaleko epea zabalduko da aurkako erreklamazioak egiteko.

#### 14. oinarria. *Behin betiko emaitzak.*

#### Base 12. *Conservar la nota del examen.*

Las personas candidatas que en la presente convocatoria consigan superar los ejercicios de comprensión escrita, expresión escrita y comprensión oral quedarán exentas de realizar los ejercicios ya superados en la convocatoria inmediatamente posterior de la Diputación Foral de Bizkaia de pruebas de acreditación de perfiles lingüísticos. Así pues, se presentarán directamente al ejercicio de expresión oral.

Esta exención también se aplicará en las mismas condiciones al personal al servicio de la Diputación Foral de Bizkaia y de sus organismos autónomos que se hubiera presentado a la convocatoria del IVAP, y como resultado de la misma, se encontrase en igual situación.

Las personas candidatas que en la presente convocatoria consigan superar los ejercicios de expresión oral, comprensión escrita y comprensión oral quedarán exentas de realizar los ejercicios ya superados en la convocatoria inmediatamente posterior de la Diputación Foral de Bizkaia de pruebas de acreditación de perfiles lingüísticos. Así pues, se presentarán directamente al ejercicio de expresión escrita.

Las personas candidatas que se encuentran en cualquiera de las dos situaciones deberán, no obstante, inscribirse en la convocatoria inmediatamente posterior, y dentro del plazo correspondiente.

#### Base 13. *Resultados provisionales.*

Los resultados provisionales de cada prueba y el resultado global aparecerán en la intranet de la Diputación Foral de Bizkaia, y se darán a conocer a través del correo electrónico.

A partir del día siguiente a la publicación de dichos resultados, las personas interesadas dispondrán de un plazo de 5 días naturales para presentar reclamaciones.

#### Base 14. *Resultados definitivos.*



Azterketa-proben behin betiko emaitzak, izangaiek egiaztatutako hizkuntza-eskakizunak adierazita, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren foru agindu baten bidez. Foru agindu horren aurka, interesdunek berraztertzeko errekurtsua jarri ahal izango dute hilabeteko epean, edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua bi hilabeteko epean. Agindua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira epe biak zenbatzen.

15. oinarria. *Azterketa egiteko egokitzapenak behar dituzten izangaia.*

Ezintasunen bat duten pertsonen enplegu publikorako sarbidea eta haientzako lanpostuen hornidura arautzen dituen abenduaren 3ko 2271/2004 Errege Dekretuaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, epaimahaiak ahalmena du egokitzapenak behar dituzten izangaiei azterketak egokitzeko, bai denborari bai baliabideei dagokienez.

Izangaiei horiek eskabidean adierazi behar dute zer egokitzapen eskatzen duten (aulki edo mahai berezia, denbora gehiago, eta abar).

Izangaiei horiei hizkuntza-gaitasun bera eskatuko zaie.

16. oinarria. *Ziurtagiriak non jaso.*

Azterketa hauen bidez hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatzen dutenek IVAPeko zuzendariaren ziurtagiria Azterneten bidez izango dute eskura (kontsultak/IVAP HE ziurtapenak), inprimagarria den euskarri digitalean. Era berean, ziurtagiri digitala eskuragarri izango da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan, «nire izapideak» atalean. Paperean ere jaso dezakete interesatuek, IVAPi idatziz berariazko eskaera eginez gero.

Los resultados definitivos de las pruebas convocadas, con expresión de los perfiles lingüísticos acreditados por las personas aspirantes, se publicarán en el Boletín Oficial de Bizkaia mediante orden foral de la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte, contra la que las personas aspirantes podrán formular recurso potestativo de reposición en el plazo de un mes, o recurso contencioso administrativo en el plazo de dos meses, contados ambos a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Base 15. *Personas que precisen alguna adaptación para realizar los exámenes.*

Al amparo de lo establecido en el artículo 8 del Real Decreto 2271/2004, de 3 de diciembre, por el que se regula el acceso al empleo público y la provisión de puestos de trabajo de las personas con discapacidad, el tribunal queda facultado para efectuar las adaptaciones de tiempos y medios que estime precisas en las pruebas para aquellos supuestos de aspirantes con alguna minusvalía.

Quienes soliciten alguna adaptación para realizar los exámenes, deberán constatar en la solicitud qué tipo de adaptación precisan (silla o mesa especial, tiempo suplementario, etc.).

La adaptación requerida no supondrá una reducción de la aptitud lingüística exigible.

Base 16. *Recogida de certificados.*

Quienes superen los exámenes de acreditación de perfiles lingüísticos tendrán disponible la certificación de la Directora del IVAP en Azternet (consultas/IVAP certificaciones PL), en formato digital imprimible. Igualmente, el certificado digital estará accesible en la sede electrónica del Gobierno Vasco, en el apartado «mis gestiones». También podrán recibir esta certificación los interesados en formato papel, previa solicitud expresa por escrito al IVAP.



1. ERANSKINA. DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA  
ANEXO 1. INFORMACIÓN SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS

DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA

2016/679 ERREGELAMENDUA [EB], DATUAK BABESTEKOA / 3/2018 LO, DATU PERTSONALAK BABESTEKOA ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEKOA

INFORMACIÓN SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS

(REGLAMENTO (UE) 2016/679 DE PROTECCIÓN DE DATOS) y LOPD Y GARANTÍA DE DERECHOS DIGITALES 3/2018

<b>Tratamenduaren arduraduna eta kontaktua</b>	<b>Responsable del tratamiento y contacto</b>
Euskara Zuzendaritza Nagusia Recalde zumarkalea 30 - 6, 48009 Bilbao	Dirección General de Euskera C/ Alameda Recalde 30 - 6, 48009 Bilbao
<b>Tratamenduaren helburua</b>	<b>Finalidad del tratamiento</b>
Tratamentu honen helburua da interesdunek aurkeztutako eskaerak kudeatzea.	La finalidad del tratamiento es gestionar las solicitudes presentadas por las personas interesadas.
<b>Interesdunaren eskubideak</b>	<b>Derechos de la persona interesada</b>
Interesdunak aukera izango du bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko edo haien tratamenduari mugak jartzeko eta tratamenduaren aurka egiteko. Horretarako, idazki bat aurkeztu beharko du, <u>Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atalari</u> zuzenduta. Leku hauetan aurkez daiteke idazkia: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Bizkaiko Foru Aldundiaren Erregistro Nagusia (Erregistroa eta Herritarrenganako Laguntza Bideratzeko Bulegoa, Laguntza: Diputazio kalea 7- 48009 Bilbo)</li> <li>• Bizkaiko Foru Aldundiaren herritarrei laguntzeko eskualde-bulegoak</li> <li>• Bizkaiko Foru Aldundiko sailetakako erregistro nagusiak</li> <li>• 39/2015 Legean aurreikusitako tokiak</li> </ul> <p>Horrez gainera, interesdunak eskubidea du kontrol-agintaritzari erreklamazioa jartzeko (hau da, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari).</p>	La persona interesada podrá acceder a sus datos, solicitar su rectificación, su supresión o la limitación de su tratamiento, y oponerse a este presentando un escrito dirigido a la " <u>Sección de Asesoramiento Jurídico, Seguridad de la Información y Protección de Datos</u> " en: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Registro Central de la Diputación Foral de Bizkaia (Oficina de Registro y Atención Ciudadana Laguntza: C/ Diputación 7- 48008 Bilbao)</li> <li>• Oficinas Comarcales de Atención Ciudadana de la Diputación Foral de Bizkaia</li> <li>• Registros Generales Departamentales de la Diputación Foral de Bizkaia</li> <li>• Lugares previstos en la Ley 39/2015</li> </ul> <p>La persona interesada dispone igualmente del derecho a reclamar ante la autoridad de control pertinente (Agencia Vasca de Protección de Datos).</p>
<b>Datuak Babesteko ordezkariaren kontaktu datuak</b>	<b>Contacto de la persona delegada de Protección de Datos</b>



## DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA

2016/679 ERREGELAMENDUA [EB], DATUAK BABESTEKOA / 3/2018 LO, DATU PERTSONALAK BABESTEKOA ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEKOA

## INFORMACIÓN SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS

(REGLAMENTO (UE) 2016/679 DE PROTECCIÓN DE DATOS) y LOPD Y GARANTÍA DE DERECHOS DIGITALES 3/2018

Lege Aholkularitza, Informazio Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Ataleko burua (Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila).

Kale Nagusia, 25 – 48009 Bilbao

Jefatura de la Sección de Asesoramiento Jurídico, Seguridad de la Información y Protección de Datos (Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales).

Gran Vía, 25 – 48009 Bilbao

### Tratamenduaren legitimazioa

10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa. 5.3 artikulua.

### Legitimación del tratamiento

Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera. Artículo 5.3.

### Datuen hartzaileak

Datu pertsonalak IVAPi lagako zaizkio.

### Personas destinatarias de los datos

Los datos personales serán cedidos al IVAP.

### Datuak gordetzeko epea

Datu pertsonalak tratatzeko beharrezko denbora.

### Conservación de los datos

Tiempo necesario para los fines del tratamiento de los datos personales.

### Interesdunen kategorien deskribapena

Bizkaiko Foru Aldundiaren eta haren erakunde autonomiadunen zerbitzuean diharduten langileak.

### Descripción de las categorías de personas interesadas

Personal al servicio de la Diputación Foral de Bizkaia y de sus organismos autónomos.

### Segurtasuneko neurri tekniko eta antolakuntzako neurrien deskribapen orokorra

Informazio-sistemak kategorizatzea eta segurtasuneko neurriak ezartzea, Administrazio Elektronikoaren esparruan Segurtasuneko Eskema Nazionala arautzen duen 3/2010 Errege Dekretuak xedatutakoari jarraiki.

### Descripción general de las medidas técnicas y organizativas de seguridad

Categorización de sistemas de información y aplicación de medidas de seguridad de acuerdo al Real Decreto 3/2010, del Esquema Nacional de Seguridad en el ámbito de la Administración Electrónica.